


Muskuluen kontrolik ez duen pertsona bat hitzen bidez komunikatzea lortu dute

Muskuluen kontrola erabat galtzeagatik komunikatzeko inolako gaitasunik ez zuen pertsona bat hitzez komunikatzea lortu dute, garun-ordenagailu interfaze baten bidez. Lehenengoz lortu da hori, eta, aldi berean, frogatu dute pertsona horien garunak aginduak emateko gaitasuna mantentzen duela.

Neurona motorrak kaltetzen direnean, alboko esklerosi amiotrofikoan kasu, mugitzeko eta hitz egiteko gaitasuna galtzen da. Badira zenbait metodo begi-mugimenduen edo aurpegiko muskuluen bidez komunikatzeko, baina, muskulu horien kontrola ere galtzean, komunikatzeko inolako aukerarik gabe gelditzen dira gaixoak.

Halako pertsona bati garunean bi mikroelektrodo ezarri dizkiote, eta, haiek jasotako seinaleen bidez, gaixoak lortu du alfabetoko hizkiak aukeratzea. Hala, gai izan da hitzak eta esaldiak sortzeko, minutuan karaktere bateko abiaduran.



Garunean, kortex motorrean, bi mikroelektrodo ezarri zizkioten gaixoari. ARG.: Wyss Center.

Gaixoak bere jarduera neuronalaren feedbacka jaso zuen, soinu gisa, eta horri esker ikasi ahal izan zuen garuneko neuronen jarduera kontrolatzen, "bai" edo "ez" adierazteko moduan. Hala, bozgorailu baten bidez erreproduzitutako alfabetoko hizkiak aukeratu edo baztertu ditzake. [Nature Communications aldizkarian argitaratu dute lorpena.](#) ●

Herpesbirus latentea nola berraktibatzen den argitu da



ARG.: Wikipedia.

Alemaniano ikertzaile-talde batek herpesbirusen inguruan aspaldian zegoen galdera gako bati erantzutea lortu du: nola lortzen duen birusak egoera latentetik ateratzea eta organismoa berrinfektatzea. Ikertzaileek ikusi dute birusa esnatzeko mikroRNA bat erabiltzen duela.

MikroRNAk RNA txiki eta ez-kodetzailak izaten dira, beste geneen adierazpen genetikoa eragozten dutenak. Herpesbirusaren mikroRNA horrek (miR-aU14) gizakien mikroRNA-familia baten heltze-prozesua bera eragozten du, eta, ondorioz, mitokondrioetan kalteak gertatzen dira. Mitokondrioek, energia sortzeko ezinbesteko egiturak izateaz gain, birusen aurkako babes immunitarioan gakoak diren seinaleak ere igortzen dituzte. Hor eragitea gakoa da herperbirusa arazorik gabe berraktibatu ahal izateko. Zehazki, immunitate-sistema birusen presentziaz ohartarazten duten interferoiak sortzea eragozten du, zelulak libreki berrinfektatu ahal izateko. [Nature aldizkarian argitaratu dute ikerketa.](#) ●



Albiste gehiago,
webgunean